

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BURGELUKO UDALA

Bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek xedatutakoa betetzeko, jakinarazten da udalbatzak bake epaile titularren eta ordezkoren karguak lau urteko aldi batez beteko dituzten pertsonak izendatzeko proposamena egingo diola Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Batzordeari.

Legeak ezarritakoaren arabera, prozeduran parte hartzeko ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

* Adinez nagusia izatea.

* Espainiako naziotasuna izatea.

* Ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. eta 389. artikulua eta 3/1995 Arautegiaren 23. artikulua).

Interesdunek Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dute eskaera; horretarako, hogei egun balioudun izango dituzte, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta agiri hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

1. NANaren fotokopia.

2. Errola ziurtagiria.

3. Zigor aurrekarien ziurtagiria.

4. Zinpeko aitortpena, honako hauen gainean:

a) Doluzko delituagatik zigortuta egon ez izana edo, hala badagokio, birgaitze onura jaso izana.

b) Ez dagoela doluzko delituagatik prozesatuta edo inputatuta.

c) Eskubide zibil guztien jabe izatea.

d) Ez egotea fisikoki edo psikikoki ezindurik epaile eginkizunetarako.

e) Ez egotea ezgaitasun edo bateraezintasun kausaren baten eraginpean, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikuluan eta 389tik 397ra arteko artikuluetan eta 3/1995 Erregelamenduaren 23. artikuluan aurreikusitako en arteko baten eraginpean, esan nahi da.

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Burgelu, 2020ko otsailaren 21a

Alkate-lehendakaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA